



A R R A T E E G A Ñ A

energía subrogatua

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z

BOOKTEGI





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARRATE EGAÑA

energia subrogatua

Lo que no sirve que no estorbe.

Mamiii, Becky G, KAROL G

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Joseluk ez ditu Gabonetako oporrak gozaten. Bestelako aire batean murgildu dira kaleak, dendak edo telebistako iragarkiak; Gabonetako espirituak edozein agertoki mudatu du. Joseluren etxeak, aldiz, beti bezain soil jarraitzen du, amonak ez omen duelako festa horietan sinesten. Joseluk ere ez, edo bai, ez daki; edonola ere, gurasoek, bizirik zituenean, etxea beretzat apaintzen zuten. Koloretako argitxoak? Amonaren ustetan, gustu txarreko dekorazioa. Jaiotza? Beste garai bateko jostailu zentzugabeak. Gabon-kantak? Hori ez da musika, musika militarra baino are gutxiago. Olentzeroren oparia, hori da amonak onartu izan duen tradizio bakarra, eta Joseluri hain zuzen horixe erostea ahaztu zaio, kontu larregi buruan.

Dena dela, aurtengo festek aldaketa ekarriko dute. Laborategitik irten, zuzenean ganbarara abiatu, eta Gabonetako gauzen poltsa handia berreskuratuko du. Amonak nahi ala ez, Joseluk etxea dekoratuko du; aurten bai, beteko du bere guraria. Hedy Lamarr, amonaren kateme kutuna, Mari Domingiz mozorrotuko du, amona ernegatzeko besterik ez bada ere, beti baitabil ñi-ñi-ñi katua dela eta.

- Ene bada, Joselu, umea ematen duzu: gainditu behingoz Gabonetako asuntua –esan ohi dio amonak, zigarreta ahoan.
- Ba zuk utzi erretzeari –erantzuten dio beti bilobak–; urte mordoa eduki duzu nerabe burugabea izateari uzteko.
- Ondo dakit hori, laztana, ondo baino hobeto. Leioa irekiko dut ke-zulo hau aireztatzeko...

Zorrozaurre-Laboratek-eko laborategi zentralak ere, kolore zuri nuklearrekoa eskuarki, beste itxura bat hartu du oporren atarian: gorria du orain tonu nagusia, bola eta zinta gorri piloak hormak kolonizatu ditu, eta tokia epelago bilakatu. Ikertzaileek eguneroko bata zuria deslotuta daramate; baten batek erantzi du dagoeneko. Alaiagoak dirudite lankideek, humanoagoak. Urrutiko melodiek ohiko isiltasun totala urratzen dute, eta bazterretan kokatu dituzten mahaietan hainbat herrialdetako jakiak dasta daitezke, kermezetan bezala.

Lankideak, hogeita hamar inguru, esperimentu eta ikerketen gaineko bromak egiten ari dira, mokadu eta tragoen artean: zientzia, teknologia, humanitateak..., neurrigabeko txantxa dirudi guztiak, telesail baten eszena. Xanpainaren kortxoa hegan irten da, plop!, eta bibaka hasi dira. Topa egin dute Gabonen alde. Merezitako atsedena lan gogorraren ostean!

Bikaina izan zitekeen oporren perspektiba, baldin eta Joseluk ez balerama lepoan desamodioaren zama. Gabonetako apaingarriek lan itzela egin beharko lukete oinaze hori samurtzeko. Helgak, eskandinaviar ikertzaile gazteak, utzi egin du. Sekretuan zeramaten harremana -amonak baino ez zekien-, eta, hastapenaren osteko urratsa ematerakoan, neskak apurtu egin du. Joselu ohartzen da aski traketsa dela amodio kontuetan, baina saiatu izan da; uste zuen oraingo honetan lortuko zuela. Triste dago, etsita; Helga, berriz, animoso, kopa eskuan, lankideekin solas bizian. Gaur goizean Joselu saihestu du, atzo legez, eta aurreko egunetan.

Helga xanpain gehiagoren bila irten denean, Joseluk burumakur jarraitu dio. Andreak zilarrezko tirak ditu ile argian endredaturik; musua, berez zurbila, gorrimin. Gizonak betaurrekoak birkokatu eta hasperenka hurbildu zaio.

- Troms-era joango zara, familia ikustera?
- Aurten ez, lanpetuta nabil –erantzun dio gazteak doinu nordiko latzarekin.
- Egunen batean gurera etorri nahiko bazenu, amonak eskertuko lizuke.
- Ez da komeni, Joselu.
- Hitz egingo genuke.
- Dena hitz eginda dago. Gera zaitetz amonarekin eta bakea eman.

Gorabeherak izaten ditu Joseluk amonarekin, baina ez du onartzen inork hari buruzko ezer txarrik esatea, ez du inondik inora horrelako traturik merezi. Joselu umezurtz geratu zenean, behar baino lehenagoko erretiroa hartu zuen emakumeak, biloba zaindu ahal izateko, ikertzaile-ikasketak etenik. Ordudanik, zaindu egin du, entzun edo kontsolatu; mila milikeria onartu dizkio egunero. Gluten gabeko produktu gozoak aurkitzen dizkio -heldutan diagnostikatu zioten intolerantzia-, eta gimnasioan behin eta berriro eman du Joseluren izena, nahiz eta mutila egundo joan ez.

- Zer duzu amonaren aurka?
- Ezer ez, ez didazu ulertu; gogoko dut zure amona, pazientzia handia du. Nik ere eduki dut, baina amaitu zait.
- Zer esan nahi duzu?

Helgak, bultzada batez, Joselu paretik kendu eta aurrera jo du. Neskaren ile argi lisoak eta zilarrezko zintek sukalderantz ihes egin dute, eta ematen du atzetik hauts magikoak uzten dituela, iratxoen antzera.

Joselu ondoezik jarri da, glutenik jan ez duen arren. Dena den, zerbitzatu dutena pittin bat dastatzeko ere ez lioke nutrizionistak baimenik emango. Festen komisioko arduradunek bere intolerantzia aintzat ez hartzea mingarri zaio, aspaldian izan baitzuten horren berri, eta sekula ez dira gai izan ezta arto hutsez egindako talo bakar bat ere ekartzeko. Izerditan dago, adurra dariola. Helgaren topaketak nahastu du.

Nola iritsi zen bere etorkizuna halako neska baten ondoan irudikatzera, are Helga amona ordeztaraino ere helduko zela? Eskandinaviarra Zorrozaurre-Laboratek laborategiko ikertzaile distiratsuenetakoa da. Strongyloides helmintosaren inguruan egin duen lanak bizkarroien ikerkuntzaren mundua eraldatu du. Izaki plurizelular hori, “estrongiloidiasi” izeneko eritasun tropikala sortzen denean, hesteetatik edo odolotik mugitzen da, eta, era berean, beste gaixotasun batzuk apaltzeko edo sendatzeko gaitasuna ere badu. Izugarria! Postu erabakigarriak lortu ditu nazioarteko elkarte zientifikorik garrantzitsuenetan.

Xumeagoa da Joseluren ikerketa. Amak eta amonak abiarazi zuten proiektuak itxaropen handia piztu zuen, eta Joseluk haien lekukoa hartu zuen. Ikasketak amaitzean zeregin horretan aritu zen, amonak lagunduta betiere.

- Astiro zabilta, maitea –esaten dio amonak maiz–; beste aldagai bat sartu behar duzu, indartsuagoa, energia gehiago sortze aldera...
- Ez sudurra sartu, amona –erantzuten dio mutilak maiz, ahalduntze gisako bat erakutsiz–; nire proiektua da orain.

Ahalduntzea gorabehera, motel doa proiektua. Amonak ebidentziak eskatzen dizkio noizean behin, ikerketaren aurrerapenaren frogak, baina Joseluk ezin dio deus erakutsi.

Amak eta amonak mutante bat sortu zuten, izainaren eta ipurtargi emearen geneak uztarturik, eta munstrotxoari “izainargi” deitu zioten. Izainaren aldetik zegokion joeragatik, historian beti izan duen rola betetzen jarraituko zuen, hots, odola xurgatuko zuen, tronbo edo odolbilduetan odola ez buxatzeko, eta odol-konexio berriak sortzeko, besteak beste. Aldi berean, ipurtargien geneek emandako organo fotogenoekin argia sortuko zuen, prozesu kimiko txundigarri baten bidez. Argi hura, behin behar bezalako potentzia lortuta, energia bihurtuko zen.

Egia da Stanford-en ere, hainbat prozesu genetikori esker, landare argitsuak lortuak zituztela; baina Joseluren amonaren eta amaren aurrerapausoa kualitatiboa izan zen, animaliekin aritu zirelako. Frankenstein txiki horren sorkuntzak ikertzaileen interesa piztu zuen, baina deskubrimenduak, Joseluren eskuetan, ez du aurrerapen esponentzialik izan. Ez esponentzialik, ez esperogarririk, ezta normalik ere. Arratoiekin eta saguekin ikertzen jarraitu du gizonak, baina ostalariak hil egiten dira, eta izainargiek isurtzen duten argia eta energia oso dira motelak.

Hasiera batean, Helgak Joselurekin kolaboratu zuen, izainargiaren proiektuaren filosofia bat baitzeturten Strongyloides bizkarroiarenarekin, baina lagunaren inizatiba eskasak andrea gogaitu zuen. Porrot horrek beraien arteko harremana ere higatu zuen.

Bitxoak, egiari zor, nazkagarriak zaizkio Joseluri; haiek maneiatzeko pintza bereziak erabiltzen ditu, krokodilo puntadun herdoilgaitzezkoak. Amonak izainargiak eskuz hartzeko aholkatu dio behin eta berriro, baina ezin ditu ukitu, ezta nitrilozko eskularruak jantzita ere, oka egingo luke bare bioluminiszente horien gorputz biguna sentitu orduko. Begi beltz handiak ikusten zaizkie eta gasteropodo gorputzak, nahiz eta lau hankatxo txiki garatu dituzten, mugitzeko orduan lagungarri. Ezustean biratu eta kosk egin diezaioke, ahoko hiru ilaratan banatutako 300 hertz horiekin, mutazioak mutazio galdu ez dituztenak. Nazkak ez lioke ikerketarekin aurrera egiteari eragotzi beharko, baina, izatez, horixe du Joseluk arazo nagusi, arazo aitorrezin.

Lankideekin elkartu da, begiak Helgaren gainetik kentzeke. Turroi zati bi nahastu ditu ahoan, bata gogorra eta bestea biguna. Txistorra pintxo pareta eta tortilla ogitartekoa. Nola edo hala, polboroi bi irentsi ditu amaitzeko, bat almendrazkoa eta txokolatzekoa bestea. To, gluten festa.

Ondoren, laborategitik ospa egitea erabaki du.

Amonari, Olentzeroren oparia erosi beharrean, sei izainargi eramango dizkio. Pintzekin hartu eta kartoizko kutxa batean sartu ditu; horien artean, Urdintxo, argi urdinkara isurtzen duen lotsatia. Beste kutxa batean, sagu zuri bat sartu du. Ziur dago opari hori amonaren gustukoa izango dela, hainbestetan eskatu dion ditxosozko ebidentzia eskuratuko baitu azkenean, gauza handirik ez bada ere.

Agurtu gabe irten eta zabuka heldu da metrora. Ibilbidean zorabiatu da. Kakagura larria sortu zaio. Metrotik irten denean, oinez jarraitu barik, autobusa hartu du. Gainontzeko bidaiariak puzkerrez kirasturik utzita, jaitsi eta aldaroka iritsi da etxeraino. Ez du asmatzen giltzak sarrailan sartzen. Arnasestuak betaurrekoak lainotu dizkio. Ia itsuturik, horma haztatuz, ziztuan eta ezinean doa pasillotik, obus gisa komunerantz. Bidean, ufaka irten zaion Hedy katemea zapaldu du, ia apropos.

– Joselu? Berrito gaizki ala? Txerriak bezala jaten duzu, motel.

Ke kerua nabari da etxean, amonak berrito erre duen seinale, eta, ohi bezala, Earth Angel edo horrelako zerbait entzuten da. Kokoteraino dago doo wop-ez, egongelako Rockolaz eta Back to the Future filmaz. Zama egozten duen bitartean, kaskoak ipini ditu Gabon-kanta gogokoenak entzun ahal izateko, eta arinago sentitzen du bere burua Dringilin dron eta horrelako hit klasikoen babespean.

Komunikatzen aldatzean, bertigoak olatu haserrearen indarrez sakatu du bidetaren kontra. Errebotez, lurzorura erori da. Odol hari fin bat dario burutik, lepoan zehar, behegaineraino. Ederra gero Gabonetako oporrak hasteko modu hau, pentsatu du masaila komuneko lauzekin bat eginda, akabo bolatxo distiratsuak, girlandak edo apaindutako konifero txikia...

Halako batean, begi gorriko sagu zuria bere begien aurretik igaro da, tipi-tapa. Antza, Joselu erori denean kutxa ireki egin da. Sagua odolarekin labaindu eta, hankatxoak zikinduta, aurrera egin du, aztarna gorriak inprimaturik utzita. Haren atzetik datoz sei izainargiak.

Baldosen gainean arin mugitzen dira zizare itsusiak. Joseluk begi ilun dirdiratsuei begiratzen die, bat-banaka. Aho asegaitzek kliski-klaska dihardute, gosetuta. Basatiki saiatzen dira zoruko odola xurgatzen, hortzak lurrean karraska. Amonari deitu nahi dio, baina hots egiteko ahalmena ere galdu du erorketarekin. Bitxoak, odolaren usainak adoretuta, Joseluren gerribueltaren tolesetan sartzen dira, bat izan ezik, Urdintxo, zeina lepotik igo baitzaio pixkanaka lokiraino eta hor... Joseluk begiak itxi eta goitika egin du, konortea galdu arte.

Suspertu denean, ohean datza goxo-goxo, amesgaiztoak atzean utzita, nonbait. Ez da The Flamingos edo Meghan Trainor entzuten ari, Gabon-kantak baizik. Lurrin hunkigarri bat heldu zaio: txipiroiak saltsan. Zeruan ote? Ez, haatik; amonaren zigarretaren kea ere sentitu baitu.

Arras ahulduta, betazalak zabaltzea lortu du. Logelako iluntasunean koloreak sortzen dira han eta hemen, lausoak, etenka, semaforoak euripean bezala. Gabonetako trasteak jarriko zituen amonak, azkenean? Jaiotza ere bai, agian, den-dena txukun-txukun?

Barre batzuk entzuten ditu, gero eta zehatzago. Mesanotxean baso bat ur dago; edan eta eztul egin du.

Amona azaldu da atalasean.

- Joselu esnatu zaigu!
- Nor dago zurekin? –xuxurlatu dio Joseluk afoniko.
- Espero dut axola ez izatea, maitea, baina Helgari deitu diot. Zeharo ikaratu naiz komunean ikusi zaitudanean.

Joselu, orain, zeruan baino hobeto. Helga agurtzeko, jarrera duin batez eseri nahi du, baina ezin.

- Kontuz, Joselu, zaude geldirik –gazte zientifikoa arduraz hurbildu zaio.
- Hobeki sentitzen naiz; flakiak jota, edozein gisaz.
- Normala da.

Azkurak Joseluren eskua gerri-alboa hazkatzera eraman du.

- Ez ukitu! –agindu dio Helgak, Joseluren eskuei oratzeaz batera.

Albo batean zein bestean, azpizunen altueran, bareen azal likin eta hotza sumatu du. Urdintxo lokian zintzilik ikus dezake trabeska. Izainargiak dira, handiagoak, lodi-lodi. Garrasi egin du.

- Lasai, Joselu, zure konstante guztiak kontrolpean ditugu –jakinarazi dio amonak.
- Glutenaren alergia apaltzen ari dela ematen du –jarraitu du Helgak–. Dioptriak ere artatzen ditugu, imajinatu: tripako minik ez, betaurrekorik ere ez...
- Eta argal. Sei kilo galdu dituzu honezkero!

Joselu aztoratu da.

- Kendu bitxoak!

- Beti esaten nizun beste maila batera eraman behar zenuela estudioa, gorago; ba hori bera egin dugu, eta kasualitatez, gainera. Komunean erori ez bazina...
- Kentzeko!
- Bai, motel, berehala kenduko dizkizugu; bizpahiru proba baino ez zaigu falta.
- Kendu orain, mesedez! Lokikoa bai, bederen!
- Kolore urdinak bilirrubina jaisten du, maitea –azaldu dio amonak–; begiratu tinko Urdintxori eta estresa desagertuko zaizu.

Helgak lasaigarri bat injektatu dio, eta burua laztandu.

Emakumeek izainargiak estaltzeari ekin diote, eta, hala ere, koloretako argiek bendak zeharkatzen dituzte, erritmo irregularrez. Joseluk animaliak lerdeka senti ditzake, eta bakoitzaren 300 hortzak gerripean eta lokian iltzaturik, baina mina baino okerragoak dira haien dardarizoak.

Bestalde, solomoetatik irteten zaion kable mordoari erreparatu dio. Bateria batzuei entxufaturik daude kable horiek. Bateriak, berriz, mesanotxe gainean dauden gelaxka fotovoltaiko batzuetan daude sartuta, eta energiaren igoera zenbakietan erregistratzen ari dira. Horretaz elikatzen dira Gabonetako argitxoak eta gainerako apaingarri luminikoak.

- Energia hori niregandik ateratzen ari zarete...
- Halaxe da! Ez al da bikaina? Energia-emailea zara. Gizonen txanda heldu da.

Amona pozarren dago. Eskuetan du sagu zuria. Animalien laguna izan da beti, eta animaliak testatzearen aurkakoa; sarritan mintzatu izan da testatzeari aurkitu dioten alternatiba teknologikoaz, interes ilunek berehala baztertu eta desaktibatu dutena. Urtero ospatu dute laborategi-animalien eguna, apirilaren 24an.

Helgak emandako ziztadak logura eragiten dio; tontotua du adimena.

- Nire logelan sartu al duzue telebista?
- Bai, eta zeuk nahi duzun filma ikusiko dugu; hemen dago Emakumetxoak, Elizabeth Taylorrena, Zein polita den bizitza, Etxean bakarrik... Nahi duzuna, maitea.
- Gabonetako filmak, bai horixe! Eseri nire ondoan, mesedez!

Helga eta amona albo banatan esertzen zaizkio lehendabiziko irudiak proiektatzen diren bitartean. Handik gutxira, Joselu lo geratu da. Hedy Lamarr gizonaren sabelean urrumaka dabil.

- Telebista itzaliko dut, bestela parametro hauek zenbatzean nahastuko naiz –dio amonak–. Zerbait jango nuke...
- Txipiroiak?
- Ez, ez ditut gustuko; prestatuta erosi ditut Joselurentzat.
- Sandwich bat daukat poltsan, erdia nahi?
- Bai, mila esker.

Gelako iluntasuna izainargien eta apaingarrien argitxo etenek urratzen dute soilik, eta isiltasunean ez da entzuten izainargien murtxikatzea baino. Helgak oharrak hartu eta, ondoren, amonarekin kontrastatzen ditu.

- Zenbat egun gehiagotan antzeztu beharko dugu Gabonetakoa? –galdetu du.
- Esperimentuak behar adina; deseroso egiten al zaizu?
- Ez –erantzun du Helgak, gelako ilunantzari so–; baina nire bizialdiko Gabonik luzeenak izango dira hauek.

Barre egin dute, eta lanean murgildu dira berriro.

Filename: energia subrogatua.docx
Directory: /Users/admin/Library/Containers/com.microsoft.Word/Data/Documents
Template: /Users/admin/Library/Group Containers/UBF8T346G9.Office/User Content.localized/Templates.localized/Normal.dotm
Title: Posts
Subject:
Author: X. Artola
Keywords:
Comments:
Creation Date: 07/09/2023 18:48:00
Change Number: 2
Last Saved On: 07/09/2023 18:48:00
Last Saved By: Aritz Branton
Total Editing Time: 0 Minutes
Last Printed On: 07/09/2023 18:48:00
As of Last Complete Printing
Number of Pages: 11
Number of Words: 2,080
Number of Characters: 13,606 (approx.)